



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2009-09-02**

VIIURTEA 1.765.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Garzonek Maite Aranalde bilatzeko eta atxilotzeko agindua eman du

IBARRA Auzitegi Nazionalako epailearen arabera, preso ohia ez zen joan auzitegiko hitzordura eta ihes egin du

KALEAN Frantziak Espainiaren esku utzi eta, 12.000 euroko fidantza ordainduta, aske geratu zen ostegunean 3



Herritar ugari hartu zuen parte atzo eginiko elkarretaratzean. A. IMAZ

Jakinarazpenik jaso gabe Kontsuelo Agirrebarrena espetxean sartu dute

LIZARTZA Atzo elkarretaratzea egin zuten herritarrek atxilotetan «ohiko prozedura jarraitu ez izana eta Ertzaintzaren jarrera salatzeko» 6

Remi Ayestaran omenduko dute herritarrek urriaren 10ean

VILLABONA «Herrian erreferente bat» zela azaldu du Josune Arretxe zinegotziak 4-5



Villabonako alkateordea hil zen lekuan herritar ugari bilduta. A.I.

Ekitaldi ugari izango dira etzi, Plaza Berrian egingo duten Saharar Festan

TOLOSA Arratsaldean hasi eta gauera arte luzatuko da festa saharar musikarekin 6

Kirol ikastaro ugari antolatu dituzte ikasturte berrirako, Belabietan

IBARRA Taichi ikastaroa jarri dute abian irailean, astelehen eta asteazkenetan 5



'Txato' Agirre, Kutzako bigarren presidenteordea mendian zendu zen abuztuaren 10ean. Nafarroako Artzain Txakur Txapelketa irabazi zuen Antonio Alustizak Txiki txakurrekin. HITZA

ARGI ILUN HANDIAK

Abuztuko kronika » Pasa den urtean berri onak nagusitu baldin baziren ere, aurtengo uztailaren amaiera eta abuztua ilun joan da.

ASIER IMAZ

Kiroletan ohi bezala emaitza onak lortu dituzte eskualdeetako kirolariek: arraunear, igerian, mendian... Hala eta guztiz ere, hiru heriotz esanguratsuk samina zabaldu dute uztaila amaieran eta abuztuaren zehar. Alde batetik Remi Ayestaran Villabonako zinegotzi gaztearen heriotza aipatu behar da, Udalaren arabera «Ertzaintzaren jazarpenaren ondorioz». Ondoren, Jose Mari Txato Agirre jeltzalearen heriotza etorri zen, mendiko istripu bat tarteko. Azkenik Behar-Zanako Antton Pebet pilotari gaztea zendu zen.

Uztailak 28

■ Nerea Letamendia zinegotzi.

Joxe Migel Gomez Elosegiren lekua hartu zuen Nerea Letamendiak, EAren zerrendako kide independenteak. Tolosako udalaren egindako Osoko Bilkuran hartu zuen zinegotzi kargua Letamendiak.

Uztailak 31

■ **Egunkaria auzia.** Espainiako Auzitegi Nazionalak Egunkaria auziari eutsi, eta epaiketa egitea erabaki zuen. Auzia artxibatzeko fiskalak

eta defentsak egindako eskaera atzera bota, eta herri akusazio gisa ari diren AVT eta Dignidad y Justicia elkartei arrazoia eman zien. Epaiketa egin ahal izateko, behin-behineko idazkia lantzen hasteko agindu zion auzitegiak defentsari. Gaur amaituko da eskaeren txosten aurkezteko epea. Bost lagun eseriko ditu akusatuen aulkian, *Egunkaria*-n lan egin izanagatik ETAKide izatea leporatuta: Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uribe, Txema Auzmendi, Xabier Oleaga eta Martxelo Otamendi tolosarra. Egunkaria auzian bost auzipetuk salatu zituzten torturak auzitegian, eta bakar batek ere ez du aurrera egin. Helegitean bitartez, auzipetuek salatu dira bidean jarritako oztopoei aurre egiten. Baina alferrik izan da: salatutakoa ikertzen borondate eta jarrera eskasa agertu dute instrukzio epaileek eta sakaketa bakar bat ere ez da iritsi auzitara.

■ Remi Ayestaranen heriotza.

Herriko Jaietan zendu zen Remi Ayestaran udal zinegotzia. Ondorengo egunetan hainbat ekitaldi burutu ziren Villabonan, «Ertzaintzaren jazarpena eta Ayestaranen erailketa» salatzeko.

Abuztuak 2

■ Zendoia lehen zortzi mila-koa.

Unai Zendoia billabonatarak Oscar Porras eta Arkaitz Lasa mendizaleekin Gasherbrum I (8.068 m) mendiko tontorra zabaldu zuten.

Abuztuak 3

■ Xabi Alonso Real Madridera.

Tolosarrak Liverpool utzi eta Real Madrident jokatzea erabaki zuen. Horretarako talde madrildarrak 32 milioi euro ordaindu behar izan zizkion talde ingelesari.

Abuztuak 10

■ 'Txato' Agirre zendu zen.

Jose Mari Txato Agirre jeltzalea hil zen Panticosan (Huesca, Espainia) mendiko istripuz. Oreak galdu eta amildegi batean behera erori zen. Harri bat jo zuen buruarekin, eta han bertan hil zen. 66 urte zituen. Abuztuaren 12an hiletan egin zioten Tolosako San Frantzisko parrokiaren elizan. Kutzako presidenteordeak bizimodua Tolosan egiten zuten, nahiz eta jaiotzez Ataungoa izan. Ekonomia lizentziaduna zen eta Juan Jose Ibarretxeren aholkulari lanetan aritu zen hura Eusko Jaurilaritzako lehendakari izan zenean. Ez zen hori izan Jaurilaritzan eduki zuen ardura bakarra. Izan ere, Mari Karmen Garmendia Kultura sailburua zenean, sailburuorde karguan aritu zen Agirre. Azken urteetan jeltzaleen eskutik egin

zuen ibilbide politikoa, baina bere hasierak ETAn egin zituen. Bruse-lara ihes egin zuen 1968an. Aro hartan egin zituen ikasketak, Belgikan bertan, Lovainan. 1976an itzuli zen erbestetik, artean ETAKide, eta Saiok pentsamendu politikoko aldzakariak ordezkatzeko izan zuten 1991n, eta Agirre ez zuen bi aukeretako bakar bat ere hartu. Ondoren EAJn afiliatu zen.

Abuztuak 13

■ Antton Pebet zendu zen.

Angeluko (Lapurdi) pilotari gaztea hil zen 22 urte besterik ez zituela. Pebet Villabonako Behar-Zana taldeko pilotari izan zen azken bi urteetan. Bikote bezala Iñaki Lizaso-rekin jokatzen zuten. Bat-batean joan zen pilotari gaztea. Asteazken gauean, ohi bezala oheratu zuten, ez zen gehiago esnatu. Pilotari bikaina, abila eta gogotsua, partida garrantzitsu asko jokatu eta irabazi zituen: Mailabiako Biharko Izarrak; Usurbileko Txapelketa; Aginagako; Donostiako Alde Zaharreko; Gipuzkoako Txapelketa... Azken txapela Villabonako Santio Jaietan irabazi zuen, duela aste bete eskas, eta pilotari onenaren saria ere berak jaso zuen, merezi bezala. Gero eta hobeto jokatzen ari zen gainera. Gora begira zegoen, eta maila al-

tuenekoen aurka aritzean hazi egiten zen, haiei irabaziz gainera... Azken partida Zestoako Dinastia Etxabe txapelketan jokatu zuen, hil baino egun bat lehenago, ongi arituta irabaziz gainera. «Oraingoan ordea, bizitzako partidak alde egin dio. Sekulako kolpea izan da familia, lagun eta guztiarentzat. Sekula ez zaituzte ahaztuko, Antton. Goian Bego».

Abuztuak 14

■ **Patxi Caminosek ezin.** Abaltzizketako semeak 12 aldiz igo nahi zuen Txindoki 24 orduren barnean. Erronka gogorra bertan behera utzi behar izan zuen seigarren itzulia egin ostean.

Abuztuak 15-16

■ **Tolosa-Getaria nagusi.** Eusko-tren Ligako estropada irabazi zuen Tolosa-Getariak Zarautzen. Bi jardunalditara jokatu zen bandera eta lehenengoan galiziarrek 4 segunduko alde lortu bazuten ere, Tolosa-Getariak bigarren jardunaldian, hurrengo egunean, bost segunduko abantaila lortu zuen. Ondorioz, Zarauzko bandera irabazi zuten Tolosa eta Getariako arraunlariek. Uztailaren 31n berriz, Euskadiko Txapelketa irabazi zuten Hondarribian.

Abuztuak 17

■ **Inpernu Gaztetxea.** Tolosako hainbat gaztek Korazonisten Eliza



Antton Pebet zendu zen abuztuaren 13an. BEHAR ZANA

okupatu zuten, Gaztetxe baten moduan jarri zuten martxan baina abuztuaren 20ean Ertzaintzak gazteak Inpernu Gaztetxetik atera zituen.

Abuztuak 26

■ **Joxe Gabirondo hirugarren.** Segalari gazteluarrak Europako Txapelketan brontzesko domina lortu zuten Alemanian.

Abuztuak 27

■ **Maite Aranalde etxean.** Ibarrik urrun 6 urte pasa ostean, Maite Aranalde aske geratu zen. Herrian harrera egin zioten eta Ertzaintzak bere osaba atxilotu zuen. Tentsio handia bititu zen Ibarri eta Ertzaintzak hainbat herritar kolpatu zituen.

■ **Lasa eta Zabala.** Joxean Lasa eta Joxi Zabalaren hilobietan ezezagunek *Gora Galindo* eta *Cerdos Comunistas* pintatu zuten. Barne Sailak, Batzar Nagusiek, EAK eta Aralarrek eraso hau gaitzetsi egin zuten. LABek «eraso faxista» hauen aurrean «herritarrek erantzun zabal» eskatu zuten. Bi tolosar gazteak 1983. urtean bahitu eta erahil zituen GALek. Hilketaren erantzuleen artean Enrique Rodríguez Galindo aurkitzen zen, Guardia Zibilaren general ohia.



Tolosa-Getariako arraunlariak Euskadiko Txapelketa ospatzen. HITZA

Abuztuak 29

■ **Antonio Alustiza eta 'Txiki'.** Nafarroako Artzai Txakur Txapelketa irabazi zuen Aresokoak Uharre Arakilen *Txiki* txakurrekin.

Abuztuak 30

■ **Goar Jimenez aske.** Ibartar gazteak 8 hilabete igaro zituen espetxean, Martutenen eta Leonen (Espainia).

■ **Carlos Peñaren erroka.** Tolosarrak Castillako Kanala zeharkatu zuen igerian leuzemiaren aurkako borrokan laguntza gehiago behar dela aldarrikatzeko helburuarekin. Peñak hiru etapatan zeharkatu zuen 130 kilometrotako kanala, bizkarrez igeri eginaz. Probaren amaieran «munduko gizonek zorian zuten» zela aipatu zuen.

■ **Tolosari Michelin gidako bi izar.** Michelin gida berdeak gehienez hiru izar banatzen dizkie herriei eta hiriei. Gipuzkoan inork ez du «ohore» hori. Bi izarren multzoan Hondarribia, Donostia eta Pasaia aurkitzen ziren, eta orain Tolosa ere elkartu zaie. Turismoan eraginarik edukirik ez zuten erabakia da, izan ere, ospe handiko gidan agertuko baita Tolosa hemendik aurrera.



Joan den larunbatean prentsurrekoa eman zuten Aranalderen ahaideek, manifestaziora deitzeko. ASIER IMAZ

Garzonek Aranalde bilatzeko eta atxilotzeko agindu du

Politika » Ostegunetik kalean zen; astean behin epaitegira joateko agindua zuten Ibarrikoak, baina ez zen agertu hitzordura.

ERREDAKZIOA

Espainiako Auzitegi Nazionalako Baltasar Garzon epaileak bilatze eta atxilotze agindua eman zuten atzo Maite Aranalderen aurka. Joan den ostegunetik, 12.000 auroko fidantza ordainduta, kalean zen Ibarri. Astean behin epaitegi agertzeko agindua zuten, baina jakitera eman dutenez, Aranalde ez zen agertu hitzordura.

Fiskaltzak Aranalde aske utztearen aurkako helegitea aurkeztu zuen joan den ostiralean eta preso ohiari segurtasun neurri gehiago jartzea eskatu zuen. Honekin, «herrialdeetik ihes egitea» ekidin nahi zuen. Izan ere, herenegun eguerdik ordu batean luzatutako kartzelaratzeko aginduan, preso ohiak «alde egingo zutenaren arrisku handiaz» ohartarazten zuen Garzon epaileak.

Baltasar Garzon epailea herenegun itzuli zen oportetarik eta errekursoa onartu ondoren, kartzelara sartzeko agindua eman zuten. Segurtasun Indarrak Aranalderen etxera, Ibarri joan zirenean, bera ez zegoen bertan. Hori dela eta, orain, atxilotzeko eta kartzelaratzeko eskatu dute.

Joan den asteartean bete zuen Aranaldek Frantziako epaitegiak ezarritako zigorra, eta Espainiaratua izan zen. Egun bat beranduago, Eloy Belasco epaileak (Garzonen ordezkapena egiten ari zenak) fidantzapean aske uzteko erabakia hartu zuen. Bestalde, Aranalderi Espainiako pasaportearen erretiratzeko eta Espainiaren menpe dauden lurretatik ateratzeko debekua jartzea ere ebatzi zuen. Etxetik

gertuen duen polizia etxean agertzeko agindua ere eman zion.

Alfredo Perez Rubalcaba Espainiako Gobernuako Barne Ministroak hainbat deklarazio egin zituen atzo Aranalderen kasuaren inguruan, eta adierazi zuen, «Aranalde, Frantzian izandako akats burokratiko baten ondorioz aske baldin badago ere», Garzonen atxilotze agindua izanda orain, atzemango dutela, eta lan horretan dihardutela orain. Bestalde, jakitera eman zuten, honek ez duela esan nahi bi estatuen arteko koordinazioa txarra denik, «beraiek dira hankasartze honekin gehien damututa daudenak», gaineratu zuen Rubalcabak.

Iskanbila asko sortu dituen kaleratzea


2005eko martxoaren 19an atxilotu zuten Aranalde, Montpellierran (Okzitania), ET Arekin harremana izatea leporatuta. Frantzian espetxe zigorra bete eta gero, Espainiako Auzitegi Nazionalera eraman zuten, eta baldintzapean aske utzi zuten Eloy Velasco epaileak. Joan den ostegunean irten zen Soto del Real kartzelatik. Hasieratik zeresan handia sortu zuen kaleratzeak. Izan ere, beste delitu bat egotzi nahi diote Aranalderi, berriz ere

auzipezko, baina Frantziako Justiziak galdu egin ditu horretarako behar dituen agiri batzuk.

Aranalde, ostiral goizaldean iritsi zen bere jaioterrira, Ibarri, eta bertan Ertzaintza oldartu egin zen preso ohiaren zain zeuden ahaide, lagun eta ingurukoan aurka. Hasiera batean, senide eta lagunak lehen ongietorria egitekoak ziren Aranalderi, baina Espainiako Auzitegi Nazionalako Ismael Moreno epaileak debekatu egin zuen harrera.

Ibarri eskualdera ailegatzean, ehunka lagun zituen zain «agurtu eta besarkatzeko». Bertan, Ertzaintza oldartu eta preso ohiaren osaba bat kolpatu zuten, hau erietxera eraman behar izan zutelarik. Honez gain, beste ahaide bat ere atxilotua izan zen. Ertzaintzak hainbat aldiz kargatu zuten gauean zehar; hiru lagun inputatu zituzten «terrorismoa goratze» leporatuz.

Aranalderen etorrera gauean gertatutako istiluak salatzen ari ziren eta inputatuei elkartzasuna adierazteko, *Utzi Ibarri bakean* lelopean manifestazio isila egin zuten pasa den igandean, hainbat lagunek Ibarri. Orduan ere Ertzaintzaren presentzia handia izan zen.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Ibarrako San Bartolome jaietako danborradan hartu zuten parte-gatetxoek. I.T.

Saharar Festa izango da etzi, Plaza Berrian

Tolosa » Askotariko ekitaldiak izango dira arratsaldean hasi eta afalostera arte; edonork hartu ahalko du parte.

ERREDAKZIOA

Uztailaren erdialdera iritsi ziren eskualdera haur-sahararrak eta dagoeneko euren etxeetara itzultzeko egunak kontatzen hasiak dira, irailaren 10ean abiatuko baitira Algeriako Tinduf hiriarren ondoan dauden errefuxiatuen kanpalekuek. Hala, euren bisita dela eta, urteroko moduan, festa antolatuta du etzira Tolosaldea Sahararekin elkarrekin Tolosako Udaleren laguntzarekin.

Etzi izango da festa, arratsaldean hasita, Plaza Berrian. Bertan haima jarriko dute, eta tea prestatuko dute saharar erara. Edonork izango du tea dastatzeko aukera, eta henna ere jarriko dutenez nahi

» EGITARAUA

Irailak 4, ostirala

- **16:00.** Haima jarriko dute, eta te dastaketa eta henna ere izango da.
- **17:00.** Haur jolasak.
- **19:00.** Ekitaldi politikoa, Frente Polisarioko ordezkariarekin.
- **20:00.** Uzkudun ahizpak trikitilariak.
- **21:00.** Herri afaria.
- **22:30.** Kontzertua saharar musika taldearekin: Estrella Polisario.

dutenek tatuaje bereziak egin ahalko dituzte.

Gaztetxoek jolasteko aukera izango dute gero, eta ekitaldi politikoa ere izango da, Frente Polisarioko EAEko ordezkariaren eskutik. Iluntzean musikak hartuko du protagonismoa, trikitixak, hain zuzen ere Uzkudun ahizpekin, eta afalostean saharar musika ezagutzeko aukera izango da. Herritar guztiak gonbidatu dituzte festan parte hartzera.



Elkarretaratzea egin zuten atzo iluntzean lizartzarrek Kontsuelo Agirrebarrenaren espeteratzea salatzen. A. IMAZ

Martuteneko espetxean sartu dute Agirrebarrena, jakinarazpenik jaso gabe

Lizartza » Atzo elkarretaratzea egin zuten «ohiko prozedura jarraitu ez izana eta Ertzaintzaren jarrera salatzen».

IÑIGO TERRADILLOS

Espainiako Auzitegi Gorenak lau urteko espetxe zigorra ezarri eta gero, atzo sartu zuten Martuteneko espetxean Kontsuelo Agirrebarrena lizartza. «Ez zuen, ordea, atzo atxilo hartuko zutenaren jakinarazpenik jaso», eta hori salatu nahi izan zuen haren sendiak, «Ertzaintzak atxilotetaren uanean izan zuen jarrerarekin batera». Hain zuzen ere, atzo iluntzean elkarretaratzea egin zuten sendiak eta herritarrek gertatutakoaren berri eman eta egoera salatzen.

2007ko irailaren 6an Lizartza Udaleko Begoña Pereira PPko zinegotziari makilarekin jotzeko keinua egiteagatik Espainiako Auzitegi Gorenak lau urteko kartzela zigorra ezarri zion 61 urteko Kontsuelo Agirrebarrenari. Ondorioz,

zitazioa noiz jasoko zain zegoen 61 urteko lizartza. Inolako jakinarazpenik gabe, ordea, atzo goizean 10:30ak inguruan, Ertzaintza azaldu zen haren etxean, eta epaitegiaren aurretik igaro ostean, Martuteneko espetxean sartu zuten.

Lizartzarren familiak ohiko prozedura jarraitu ez izana salatu zuten, «ez baitzuen atzo atxilo hartuko zutenaren inolako adierazpenik jaso». Aurretik ez baino, ondoren, jaso zuten, Agirrebarrena atxilotu eta gero, arratsaldean gertatu baitziren gaur Donostiako Epaitegian azaltzeko zioen zitazioarekin. Horretaz gain, «Ertzaintzak atxilotetaren uanean izan zuen jarrera» ere salatu zuten, «ez baitute Kontsuelo non zegoen argitu, eta Tolosako epaitegiara zeramaten esan ziguten Donostia-kora eraman dutenean».

Herritarren babesa

Datorren igandean, hilaren 6an, manifestazioa egingo dute Lizartzan «Espainiako Auzitegi Gorenak hartutako erabaki neurrigabea salatu eta Kontsuelo Agirreba-

rrenari elkartasuna adierazteko». 19:00etan abiatuko da, eta isila izango da.

Manifestazioaren deialdia egiteko 200 lagun inguru elkartu ziren pasa den larumbatean herriko elizaren atarian, «Kontsuelo maite zaitugu» zioen pankartaren atzealdean. Ezintasuna eta samina izan ziren nagusi herritarren artean.

Gertakarien testuingurua ere ekarri zuten gogora, oroitaraziz Agirrebarrena 2007ko udal hauteskundeetan legez kanpo gelditu zen zerrendaren hautagaia zela. Bere zerrendak 187 boto lortu zituen, eta PPkoak 27. Horren harira, udal batzarrean inor ez dela herrikoa ere aipatu zuten.

Gisa bereko gertakariengatik dagoeneko bigarren lizartza da kartzela zigorra ezarri diotena. Joan den otsailean, Espainiako Auzitegi Nazionalak bi urteko kartzela zigorra jarri zion Peio Olanori Regina Otaola PPko alkateari mehatxu egitea egotzita. Olanok beti gezurtatu izan du haren aurkako akusazioa.

Gizonezko bat hil da kamioia amildu ostean

ERREDAKZIOA

Gizonezko bat hil zen atzo iluntzean Amezetan gidatzen ari zen kamioiarekin istripua izan zuenean.

19:10 inguruan gertatu zen ezberharra Amezetako GI 2133 baso bidean. Ertzaintzak azaldu takearen

arabera, enborrekin kargatutako kamioia gidatzen ari zen gizonezkoa, bihurtune batean amildu zenean. Gizonezkoa istripuaren eraginez hil zen, eta berarekin zihonan 26 urteko gizonezkoa zauriturik eraman zuten Asuncion klinikara.

Hilberria

EDURNE BERGARETXE MUGURUZA

(Fermin Lete Olaizolaren alarguna)

- Goian bego -

Seme-alabak: Xabier eta Lurdes Iriondo (+), Arantxa eta Joxe Uranga. Bilobak: Larratiz eta Ibon Aranguena, Ander eta Yolanda Callejo, Miren. Ahizpa: Arantza. Ezkon-ahizpak: Manoli Urdanpilleta (Julian Bergaretxeren alarguna) eta Pepa Benito.

GAUR egingo dira hileta elizkizunak, 19:00etan, Oartzungo San Esteban parrokiari. Aldez aurretik, mila esker.



OIARTZUN
2009ko
irailaren 2a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



Urte askoan!

Haimar. Gure eune bazetorrek! Eutsi gogor, txiki! Gari eta Nagore.



Urte askoan!

Haimar (Lizartza). Besarkada bero bat zure bi sorgintxoen partez!! Maite zaitugu!



Urte askoan!

Jokin Martin Kortajarena (Zizurkil). Zorionak morenazo. 9 muxu potolo familia guztiaren partetik.



Urte askoan!

Aiora Agirretxe Arozena (Altsasu). Gaur urtebete. Muxu handi bat eta aiton-amonen partetik.



Urte askoan!

Haimar. Segi holaxe! Urtez urte ardo ona bezala mejoatzen. Eutsi goiari! Geureak garaipena! Jtk! Muxu!



Urte askoan!

Urte askotarako! Lizartzako familiak.



Urte askoan!

Zorionak! Lizartzako ezker abertzaleak.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin 5, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esanien eta irizien erantzunik.